

Prestatzaileen prestakuntza

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Prestakuntza-diseinuetan, ezinbestekoak dira prestakuntzaren helburuak eta parte-hartzaileengan garatu nahi diren gaitasunak agertzea.

- **Prestakuntzaren helburuak, prestakuntza diseinatu duen pertsonaren asmoei dagozkie.**

- Prestatzaile gisa, zer egin nahi dugu?**

- **Gaitasunak prestakuntzan parte hartzen duten pertsonengan garatu nahi diren ezagutzei, trebetasunei, portaerei eta/edo baloreei buruzkoak dira.**

- Prestatzaile gisa, zer nahi dugu parte-hartzaileek jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea?**

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Gaitasun/konpetentzi kontzeptuaren inguruan definizioak

- **“Baliabideak mobilizatzea, irizpideetan oinarrituak, denbora errealeko zeregin espezifiko baten aurrean erabakiak hartzeko” (Perrenoud, 2005).**
- **“(..) Hainbat testuingurutan egoki jardutea, ezagutzak, arauak, teknikak, prozedurak, trebetasunak, jarrerak eta balioak integratuz eta aktibatuz” (Villa eta Poblete, 2007, 27).**
- **“Lanbidearen praktikan arreta handiz aukeratutako zereginen multzo errealista baten testuinguruan mobilizatutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak” (Hager, Gonczi eta Athanasou, 1994).**
- **“(..) Jakintza eta trebetasunak (ordena kognitiboa, afektiboa, psikomotorra edo soziala) integratzearen, mobilizatzearen eta egokitzearen emaitza konplexua da, izaera komuna duten egoeretan eraginkortasunez erabiliak” (Lesnier, 2000).**
- **“Eskaera konplexuei erantzuteko eta zereginak behar bezala egiteko gaitasuna. Ekintza eraginkorra lortzeko elkarrekin mobilizatzen diren trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta beste gizarte- eta portaera-osagai batzuk konbinatzen ditu” (ELGA, DeSeCo, 2002).**

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Gaitasun/konpetentzi kontzeptuaren inguruan definizioak

Oinarrizko gaitasunak

- **“Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituztenak, bai eta herritar aktiboentzat, gizarteratzerako eta enplegurako behar dituztenak ere” (Europako Erkidegoen Batzordea, 2006).**

Oinarrizko zeharkako konpetentziak edo konpetentzia generikoak

- **“Bizitzako esparru eta egoera guztietan (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta lanekoak) arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak, bai diziplina-arlo guztiekin lotutako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Zeharkako gaitasunak bizitzako esparru eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira” (Europako Erkidegoen Batzordea, 2006).**

Oinarrizko diziplina-gaitasunak edo gaitasun espezifikoak

- **“Bizitzako esparru eta egoerekin (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta lanekoak) lotutako arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak, eta diziplina-arlo batekin lotutako baliabide espezifikoak mobilizatzea eskatzen dutenak” (Europako Erkidegoen Batzordea, 2006).**

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak


Gaitasun baten oinarrizko elementuak

- Ezagutzak, trebetasunak eta, jarrerak edo balioak integratzen ditu.**
- Ekintzan bakarrik definitzen da: ekintzan gaurkotzen da, eta garatzen da.**
- Testuinguru batekin lotuta dago; egoera batetara.**
- Egoera gatazkatsu bati erantzuten dio, egoera profesional berriei edo ezagunei irtenbide eraginkor bat emanaz.**

A. Blanco Blanco (2008)

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Gaitasunak eta ahalmenak. Desberdintasunak



3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Gaitasunak formulatzea

Aztertu, aplikatu, diseinatu ...
ezagutu ordez



Testuinguru zehatz batean garatuko
da, egoera batera lotuta

Ikaskuntza bat adierazi behar du

Objektua	+	Aditza	+	Xedea/Baldintzak
Zereginaren objektua		Zeregina zehazten duen aditza		Zereginak betetzen duen helburua / zeregina betetzen den baldintzak
Arazo bat, kasu bat, testu bat ...		Diseinatzea, ebaluatzea, gauzatzea, eraikitzea kontrastatzeko irizpideen arabera ...

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Adibide gisa:

1) Hezkuntza eta prestakuntza egoerak diagnostikatzea, esku-hartze pedagogikoa egin baino lehen.

2) Prestakuntzako eta metodologiako hainbat estrategia erabiltzea, hezkuntza-eragileen artean esku hartzeko.

3) Profesionalentzat prestakuntza proposamenak diseinatzea, esku hartzeko testuinguruei egokituak.

OBJETUA

+

ADITZA


+

XEDEA

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak


Helburuen aukeraketa:

Prestakuntza prozesuak bukatutzat ematen direnean
(*Ended process*)



Eredu teknologikoa

Produktua da ardatza




Prestakuntza prozesuak ez-bukatutzat ematen direnean
(*Non-ended process*)

Bidaia da ardatza

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Zer dago gaitasun eta helburu baten atzean? Aditzen garrantzia



Taxonomia.
Bloom eta Anderson



3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Prestatzaile gisa, zer egin nahi dugu? Eta zer nahi dugu parte-hartzaileek jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea?

MAILA BAXUA	MEMORIZATZEA Informazioa jaso	ULERTZEA Azaldu	APLIKATZEA Ezagutza erabili
<p>Aditz adierazgarriak.</p> <p>Adibide gisa:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - definitzea - zerrendatzea - izendatzea - identifikatzea - errepikatzea - deskribatzea - jasotzea - ... 	<ul style="list-style-type: none"> - elkartzea - ezberdintzea - zabaltzea - laburtzea - deskribatzea - interpretatzea - kontrastatzea - azaltzea - baieztatzea - ilustratzea 	<ul style="list-style-type: none"> - aplikatzea - betetzea - ilustratzea - adieraztea - aztertzea - aldatzea - klasifikatzea - esperimentatzea - deskubritzea - erabiltzea - ebaztea - eraikitzea
<p>Zeregin baten adibide</p>	<p>Aipatzea</p>	<p>konparatzea</p>	<p>kalkulatzea</p>

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Prestatzaile gisa, zer egin nahi dugu? Eta zer nahi dugu parte-hartzaileek jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea?

MAILA ALTUA	AZTERTZEA	EBALUATZEA Emitza baloratu	SORTZEA
<p style="text-align: center;">Aditz adierazgarriak.</p> <p style="text-align: center;">Adibide gisa:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - banatzea - ordenatzea - azaltzea - konektatzea - konparatzea - aukeratzea - konpontzea - aztertzea - ... 	<ul style="list-style-type: none"> - erabakitzea - graduak ezartzea - proba egitea - neurtzea - epaitzea - baloratzea - kritikatztea - argudiatzea - proiektatzea - auresatea 	<ul style="list-style-type: none"> - konbinatzea - integratzea - berrantolatzea - planeatzea - asmatzea - orokortzea - diseinatzea - hipotesiak planteatzea - garatzea
<p style="text-align: center;">Zeregin baten adibide</p>	<p style="text-align: center;">antolatzea</p>	<p style="text-align: center;">argudiatzea</p>	<p style="text-align: center;">berridaztea</p>

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

Prestatzaile gisa, zer egin nahi dugu? Eta zer nahi dugu parte-hartzaileek jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea?

Eremua	Gradientea
Kognitiboa (Bloom, 1971)	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ezagutzea ■ Ulertzea ■ Aplikatzea ■ Aztertzea ■ Sintetizatzea ■ Ebaluatzea
Prozedimentala	<ul style="list-style-type: none"> ■ Proiektatzea ■ Kalkulatzea ■ Berreraiketa egitea ■ Demostratzea
Jarrerazkoa (Marcelo, 1997)	<ul style="list-style-type: none"> ■ Nabaritzea ■ Erantzutea ■ Baloratzea ■ Inplikatzea ■ Konprometitzea ■ Parte hartzea ■ Iniziatiba izatea

Eremua	Gradientea
Psikomotorra (Baldwin, 1971)	<ul style="list-style-type: none"> ■ Posturak adieraztea ■ Erantzunak gidatzea ■ Mekanismoak erakustea ■ Erantzun irekia adieraztea ■ Aldatzea ■ Antolatzea
Afektiboa (Krathwoh, 1964)	<ul style="list-style-type: none"> ■ Harrera egitea ■ Erantzutea ■ Baloratzea ■ Antolatzea ■ Asimilatzea / barneratzea

Taxonomia desberdinak

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea



3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

Zer dira edukiak? Eta, zer eduki mota daude?

Curriculum-eduki

- **Ikasten eta irakasten dena osatzen duten elementuen multzoa.**

Jarrerazko edukiak

- **Objektu, pertsona edo egoera jakin bati buruzko ezagutzetan, sinesmenetan, sentimenduetan, lehentasunetan eta balioetan oinarritzen diren joerak, ohiturak edo hartutako xedapenak, nahiko iraunkorrak.**

Adierazpenezko edukiak

- **Gai akademikoetan antolatutako jakintzari dagozkion datu, gertaera, kontzeptu eta printzipioei buruzko ezagutza teorikoekin lotutako jakintzak.**

Prozedurazko edukiak

- **Adierazpenezko nahiz jarrerazko edukiak eskuratzeko behar diren estrategia edo urrats antolatuak, trebetasun edo trebetasun bihurtzen direnak.**

Hemen aipatua:
Heziberri 2020



3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

Edukiak aukeratzeko printzipio orokorrak

Gaiari dagokionez:

- **Gaien adierazgarritasunak kontuan hartzea**
- **Alderdi eta kontzeptu esanguratsuenak aukeratzea**
- **Orokortzeak ikasgelatik kanpo egitea**

Ikasleei dagokionez:


- **Ikasleen mailara egokituta egotea**
- **Errealitate hurbileko arazoekin eta egoerekin lotuta egotea**
- **Funtzionalak izatea**

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia


Edukiak sekuentziatzeko irizpideak

a) diziplinen arteko erlazioaren arabera

Multi-diziplina




Pluri-diziplina



**Edukietan eta metodologi-
etako kooperazioa eta koordinazioa egotea**



Inter-diziplina



**Gaitasunetan, edukietan
metodologi-
etako kooperazioa eta koordinazioa egotea**

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

b) diziplinen barruko sekuentziaren arabera



3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

- 3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak
- 3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia
- 3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak
 - 3.3.1 Prestakuntza-modalitateak
 - 3.3.2 Estrategia metodologikoak
 - 3.3.3 Irakaskuntza-metodoak
 - 3.3.4 Prestakuntzarako teknikak
- 3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea
- 3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea
- 3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta strategi metodologikoak

Modalitatea

Ikasgai edo esperientzia bat ikasteko modua. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gauzatzeko bitartekoak, denborak eta prozedurak barne hartzen ditu.

Metodologia

Ikaskuntza-prozesua kudeatzeko aukeratzen den bidea edo estrategia, prozesu horretan esku hartzen duten aldagai guztiak kontuan hartuta.

**Hemen aipatua:
Heziberri 2020**

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

a) Prestakuntzaren helburuaren arabera

Prestakuntzaren helburuaren arabera, ondorengo prestakuntza-modalitateak aipatzen dira, besteak beste:

Ikastaroak	Informazioa transmititzean oinarritzen da.
Tailerrak	Produktu, ideia, prototipo... baten eraikuntzan oinarritzen da.
Mintegiak	Parte-hartzaileek egin behar duten ikerketa-jardueran oinarritzen da.
Aholkularitza zentroetan	Zentro bateko irakasleen beharren arabeko gidak, jarraibideak eta aholkuak ematean oinarritzen da.
Ikasgelako praktikak	Ikasitako eduki teorikoei zentzua eta erabilgarritasun praktikoa ematean oinarritzen da.
Jardunaldiak	Egindako esperientzia praktikoei edo jardunbide egokiei buruz partekatzean eta eztabaidatzean oinarritzen da.
Hitzaldiak	...

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

a) Prestakuntza-motaren arabera

Prestakuntza-motaren arabera, ondorengo prestakuntza-modalitateak aipatzen dira:

Aurrez aurreko prestakuntza	Prestatzailearekin eta lankideekin hitz egiteko, kontrastatzeko eta eztabaidatzeko hurbiltasunean datza garrantzia.
Prestakuntza birtuala edo Online prestakuntza <i>(electronic learning edo e-learning)</i>	Ikaskuntzarako espazio birtual bat da, urrutiko gaikuntzaren esperientzia erraztera bideratua, bai enpresentzat, bai hezkuntza-erakundeentzat... askatasuna eskaintzen du, denborari eta ikasteko erritmoari dagokienez.
Prestakuntza erdi-presentziala <i>(Blended learning edo b-learning)</i>	E-learning (topaketa asinkronikoak) aurrez aurreko topaketekin (sinkronikoak) konbinatzen duen ikaskuntza da, eta bi ikaskuntza moten abantailak hartzen ditu.
...	...

Hemen aipatua:

Bello, 2007; Cabero, 2006; Moreni, 2011



3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

- 3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak
- 3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia
- 3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak**
 - 3.3.1 Prestakuntza-modalitateak
 - 3.3.2 Estrategia metodologikoak**
 - 3.3.3 Irakaskuntza-metodoak
 - 3.3.4 Prestakuntzarako teknikak
- 3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea
- 3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea
- 3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.3.2 Estrategia metodologikoak

Sailkapenak:

Informazioaren transmisioan oinarritutako
metodologiak

Ikasleen jardueran oinarritutako
metodologiak

4 modalitate desberdintzen dira (Herrero,1997):

- 1) Azalpen-metodoa: irakasleen azalpenak dira
- 2) Metodo erakuslea: irakaslearen azalpena ikasleen parte-hartzearekin uztartzen da
- 3) Galdera-metodoa: galderen bidez ezagutza eraikitzen da
- 4) Aurkikuntza-metodoa: irakasleak ikas-prozesua errazten du. Ikasleak erantzunak topatu behar ditu.

Ikaskuntza aktibo

3.3.2 Estrategia metodologikoak


Sailkapenak:



2 modalitate desberdintzen dira (Puente, 1992):

- Banakako irakaskuntza: ikaslearen berezitasunetan oinarritzen da.
- Talde- ekipoetako irakaskuntza: parte-hartzea, erantzukizunak hartzea, motibazioa handitzea, jarreretan aldaketak sortzea; abilezia konplexuak garatzea (erabakiak hartzea ...) ... sustatzen da.

Ikaskuntza aktibo



Bi modalitate horien konbinazio egokia eta orekatua aurkitzea gakoa da.

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

- **Ikaskuntza kooperatiboa**
- **Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza**
- **Arazoetan oinarritutako ikaskuntza**
- **Ikaskuntza eta zerbitzu solidarioa**
- **Ikaskuntza *dialogikoa***
- **Gela iraulia**
- *Gamifikazioa*
- ...

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Ikaskuntza kooperatiboa

- Lan-taldeetako kideek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak azaltzen duena ikastea eta lan-taldeko kideei ikasten laguntzea.
- Irakasleak xede bikoitza du: ikasleek edukia ikastea eta ikasleek taldean lan egiten ikastea (eduki gisa).
- Ikaskuntza kooperatiboa barneratzeko, beharrezkoa da ikasleak talde egonkor eta iraunkorretan antolatuta egotea.

Hemen aipatua:
Pujolás, 2009

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)

- POI-k ikaskuntza-prozesuaren paradigma klasikoa aldatu nahi du, non ikasleak sarri ez baitaki zertarako balio duen ikasten duena, edo zergatik ikasi behar den hori.
- Paradigma berri bat da eta protagonismoa ikasleari ematen dio. Ikaslearen rol pasiboa saihesten du eta ikaslearen parte-hartze aktibo eta kritiko bultzatu nahi du, proiektuan definitu behar diren funtsezko helburuak lortzeko.
- POI-k aukera ematen die ikasle guztiei modu inklusiboan ikasteko
- Ezagutzak sozialki (taldean) eraikitzen dira.

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI)

- AOI, ikaskuntza adierazgarria eta ikerketaren bidez egindako ikaskuntza bultzatzen du.
- Arazoak oinarritzat hartuz, ikasleek edukiak bereganatu behar dituzte eta ondoren aplikatu.
- Ikertu beharreko arazoa irakasleak planteatzen du; landu nahi den gaiaren arabera.
- Ikasleak arazo horri konponbidea emango dio, ikaskuntza prozesua ematen den bitartean.
- Metodologia tradizionalen ez bezala, AOI-n arazoa aurkeztu egiten da, ondoren arazoa eta ikaskuntza premia zehazten da eta, azkenik, ikasleak arazora itzultzen dira konponbidea topatzeko.

Hemen aipatua:

MORALES, P. eta LANDA, V. (2004). Aprendizaje basado en problemas. *Theoria*, 13. 145-157.



3.3.3 Irakaskuntza-metodoak


A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa (IZS)

“Ikasketa eta zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein erkidegoarentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, inguruneko benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz”.

Hemen aipatua:

Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C. eta Palos, J. (2007).
Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Octaedro, 20.



- Ikasketak zerbitzua hobetzen du, ikasitakoa errealitatera eraman daiteke ekintza moduan eta, horri esker, kalitateko zerbitzua eskaintzen zaio erkidegoari.

- Zerbitzuak ikasketa hobetzen du, motibatu egiten du, zentzua ematen dio, bizi-esperientzia ematen dio eta, horri esker, ikasketa berriak ateratzen dira.

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Ikaskuntza *Dialogikoa*

- Ikaskuntza berdinen artean ematen den elkarrizketaren ondorioa da.
- Pertsona ezberdinen arteko erlazioa berdintasunean oinarritzen da eta ez boterean.
- Edozein hezkuntza-testuinguruan eman daiteke.
- Jarduera planifikatuaren bidez lortzen da. Jarduera hauek irekiak eta malguak dira.
- Gizarte eraldaketa sustatu nahi da.
- Hezkuntza formalean garatzen denean, ikastetxeak IKAS KOMUNITATEETAN eraldatzen dira.

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Gela iraulia / *Flipped classroom*

- Eredu mistoa edo erdipresentziala da, eta ardatza ikasketa prozesuaren testuinguruan ipintzen da.
- Eredu pedagogiko honek irakasteko eta ikasteko prozesuaren zati bat ikasgelatik kanpo transferitu beharra planteatzen du:
 - Ikasgelako denbora ikaskuntza esanguratsua erraztuko duten prozesu kognitiboak garatuko dira. Besteak beste, talde-lana sustatuz.
 - Ikasgelatik kanpo ikasleak lana bakarrik egiteko aukera du. Lan autonomoa sustatuz. Horretarako irakasleak prestatuko duen ikus-entzunezko materialak berebiziko garrantzia dute.

Hemen aipatua:

Calvillo, A.J. (2015). Learning en el aula de música. *Aula de secundaria*, 15, 23-25.

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

A) Ikaskuntza aktiborako metodoak

Gamifikazio

- Gamifikazioa jolasen eta aisialdiaren berezko teknikak, elementuak eta dinamikak erabiltzea da. Jolas-jarduera hauek motibazioa sustatzeko, portaerak indartzeko, arazo bat konpontzeko, produktibitatea hobetzeko, helburu bat lortzeko, ikaskuntza aktibatzen, gizabanako jakin batzuk ebaluatzen ...erabiltzen da.**
- Jolasen pentsamendua eta mekanika aplikatu nahi dira eguneroko bizitzako esparru espezifikoetan. Gurera ekarrita, prestakuntzarekin lotutako zenbait helburu lortzen laguntzeko erabiltzen da.**
- Gamifikazioaren oinarria jokoak dira, baina beti ere helburu hezigarri batekin.**
- Gaur egun adibide argi bat ihes gelak edo *scape room* dira.**
- Oso hedatuta dagoen joko-hezigarria *Kahoot*-a da.**

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak.
Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Gaur egun prestatzaileen prestakuntzan ohikoak diren metodoak hauexek dira, besteak beste:

- **Praktika-Komunitateak**
- **Gainbegiraketa klinikoa**
- **Mentoria**
- **Ikerkuntza-ekintza**

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Praktika-komunitateak

- ✓ Ezagutzak partekatzea du helburu. Norberak dituen esperientzi praktikoen hausnarketaren ondorioz.
- ✓ “Giza talde bat interes komun batekin, etengabeko interakzioa oinarrian izanda beraien ezagutzetan eta esperientzietan sakontzen dute, haien arteko erlazioa sendotuz” (Wenger, 1998).
- ✓ Erakundeak praktika-komunitateen konstelazio bat dira.

Praktika-komunitateetan bereizi beharreko elementuak:

- **Domeinua.** Intereseko eremu partekatua. Komunitateari berezko nortasuna ematen dio.
- **Praktika.** Parte-hartzaileek esperientziak azaldu eta konpartitzen dituzte.
- **Komunitatea.** Interes komun hori partekatzerakoan komunitate bihurtzen dira. Ezagutza partekatzeko ekintza bateratuetan murgiltzen dira eta elkarren laguntza dute.

Hemen aipatua:

Wenger E. (1998). *Communities of Practice: Learning, Meaning, and Identity*. Cambridge University Press.



3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Gainbegiraketa klinikoak

Zer da? Irakasleen/langileen prestakuntza hobetzeko estrategia metodologiko bat da. Hausnarketan eta behatzailea eta behatuaren arteko kolaborazioan oinarritzen da.

Zein da helburua? Irakasleak/langileak bere jardunaren inguruan kritikoki hausnartzea. Gainera, behatzailearen laguntzarekin praktikan dituen arazoak eta beharrak identifikatzea, eta horiei irtenbidea ematea.

Zer baliabide erabiltzen dira? Behaketa, landa-oharrak (sistema narratiboa), elkarrizketak, gertakari kritikoei buruzko oharrak eta teknologia (bideoa ..).

4 fasetan garatzen da:

- **Plangintza burutzeko elkarrizketa**
 - **Behaketa**
 - **Analisia**
- **Analisiaren elkarrizketa**

Hemen aipatua:
Carrasco, M.J. (1999). La supervisión clínica como estrategia formativa. *XXI Revista de Educación*, 1, 191-201.

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Mentoria

Zer da? Irakasleen/langileen hasierako prestakuntza hobetzeko estrategia metodologiko bat da. Irakasle/langile hasiberriak (mentorizatu) esperientzia duen irakasle/langile batengandik (mentorea), erakundearen integrazteko eta bere lana ondo gauzatzeko laguntza jasotzen du.

Zein da helburua? Irakasle hasiberriari informazioa eta ezagutzak transmititzea; irakaslea eskolan integratzea eta orientatzea, eta irakaskuntza kalitatea hobetzea.

Zeintzuk dira mentoria motak?

- Banakakoa: Mentorea eta mentorizatu.
- Taldekoa: Mentore bat eta mentorizatu talde bat.

Hemen aipatua:

Velaz de Medrano, C. (2004). Competencias del profesor-mentor para el acompañamiento al profesorado principiante. *Revista Profesorado*, 13(1), 209-229.



3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Mentoria

Coaching, Mentoring eta Tutoring terminoen arteko desberdintasunak

Coaching	≠	Mentoring
Entrenatzaile bat dago		Harremana berdinen artekoa da
Ez du zertan borondatezkoa izan behar		Borondatezkoa da
Lanari buruzko orientazioak, akzioa eta <i>feedback</i> -a ematea		Entzutea, eztabaidatzea, ereduak eskaintzea eta iradokizunak egitea

Tutoring	≠	Mentoring
Erlazioa ez da orekatua (irakasle/ikasle)		Erlazioa simetrikoa da
Tutorearen esku hartzea zehaztuta dago		Mentorearen esku hartzea ez dago zehaztuta
Arazoa hasieratik definitu eta mugatzen da. Tutorea arduradun bakarra da eta ebaluaketaz arduratzen da.		Arazoa hasieratik ez da definitzen, ezta mugatzen ere.

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategi metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Mentoria

Mentorearen zeregina 6 jokabide hauetan islatzen da (Cohen, 1998):

Jokabideak	Helburuak	Gaitasunak
Enpatia eta onarpena	Konfiantza lortzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Entzuten daki ▪ Aztertzailerik ona da ▪ Informazioa eskaintzen du ▪ Mentorizatuaren jarrerak/sentimenduak ulertzen saiatzen da ▪ Erantzunak ematen ditu
Informazioaren azterketa eta komunikazioa	Aholkularitza ematea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrizketa, informazio iturri bezala erabiltzen daki ▪ Mentorizatuaren formakuntza baloratzen daki ▪ Arazo eta irtenbideei buruz orientatzen daki
Ikuspuntu globala	Aukerak proposatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baliabide ezberdinetara jotzen du ▪ Arazo baten aurrean ikuspuntu ezberdinak ematen ditu
Ikuspuntu egiaztatua	Erronkak planteatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kritiken eragina baloratzen daki ▪ Aldaketek dakarten jarrerak eta estrategiak aukeratzen ditu ▪ Balorazioak egin aurretik komentarioak egiten ditu
Mentorea eredu gisa	Motibatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bere esperientziak partekatzen ditu ▪ Mentorizatuarengan duen sinesmena erakusten du
Mentorizatuaren rolean jartzea	Iniziatiba sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hausnarketara bideratzen duten elkarrizketak sortzen ditu ▪ Estrategiak komentatzen ditu ▪ Hartutako erabakietan konfiantza jartzen du

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Ikerkuntza-Ekintza

Zer da? Egunerokotasunean agertzen diren arazoei irtenbidea emateko metodo kolektibo eta praktikoa da.

Zein da helburua? Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzea. Testuinguruan ez dagoena berrikustea eta funtzionatzen ez duena moldatzea.

Hemen aipatua:

Revenga, A. (2001). Investigación-Acción en la enseñanza secundaria. Experiencia Auto formativa en la clase de ética. F. Imbernon, M. Alonso, M. Arandia, I. C. Cases, I. Fernández Fernández, A. Revenga, eta P. Ruiz de Gauna. *La investigación educativa como herramienta de formación del profesorado* (71-101). Grao.



3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

B) Prestatzaileen prestakuntzarako metodoak. Jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa

Ikerkuntza-Ekintza

Praktikan oinarritzen den ikerketa-metodoa da

Ikerkuntza metodoa

Orientabide kritikoa

Orientabide kritikorekin lotuta dago

Irakaskuntza

Irakaskuntza hobetzeko, parte-hartzea sustatzen da

- Ikerkuntza-Ekintza
- Ikertzeko metodoa
 - Hezitzaileen garapen profesionalerako metodoa

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak


3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak



3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

Teknikak	Gaitasunak	Deskribapena
Ikaskuntza zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Informazioa bilatzea ➤ Ahozko komunikazioa lantzea ➤ Pentsamendu erreflexiboa garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Gaiaren azalpen laburra egiten da n Taldeka, gaiaren inguruan ikerkuntzen da
Eztabaida zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ahozko komunikazioa lantzea ➤ Argudiatzea; pentsamendu logikoa garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Gai baten inguruan ikuspuntu ezberdinak eztabaidatzen dira n Arauak: 1) denen parte-hartzea; 2) gaia agortzea; 3) argudio logikoak erabiltzea; 4) onarpena eta errespetua mantentzea n Sintesia amaieran egitea
Foroa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Parte-hartzea sustatzea ➤ Ahozko komunikazioa lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Ideien adierazpen librea egiten da n Arauak: 1) hitza eskatzea; 2) parte-hartzearen ordena errespetatzea; 3) interbentzio laburrak egitea; 4) iraupena mugatzea n Bukaeran: 1) sintesia egitea; 2) Ondorioak idaztea; 3) ezberdintasunak (dibergentziak) azpimarratzea
Rol jokoak: dramatizazioa eta sozio-drama	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Elkarrizketa bultzatzea ➤ Hausnarketa garatzea ➤ Emozioak agerian jartzea 	<p>Elkarrizketa eta enpatia erabiliz, pertsonen portaeretan aldaketak bultzatzea.</p> <p>Arauk: 1) papera ezberdinetan izandako sentimenduak adieraztea; 2) gertatutakoa taldean aztertzea; 3) alderdi bereziak aztertzea; 4) talde osoak iritzia ematea</p>
	<p>Dramatizazioa: pertsona baten papera hartzen da eta barneratu behar den jarrera/portaera laburbiltzen da</p> <p>Sozio-drama: barneratu behar den jarrera/portaera libreki hartzen da</p>	

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

Teknikak	Gaitasunak	Deskribapena
Mintegi	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ikertzea ➤ Informazioa bilatzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Mintegiaren gaia motibagarria izan behar du n Helburu garrantzitsuena: lehen mailako iturriak erabiltzea, gaia aztertzea eta ondorioetara iristea n Koordinatzaile bat egongo da
Kontzeptu-mapak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Pentsamendu logikoa garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Eskema hierarkiko bat egitea n Hasierako eta/edo bukaerako kontzeptuak antolatzea; irakurgai bat, azalpen bat ...
Aldibereko elkarrizketak, Erlauntza, Burrunba	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Loturak eraikitzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Ideiak, iritziak, dudak ... bikoteka partekatzen dira
Lau txoko	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arazoak ebaztea ➤ Ikuspuntu desberdinak defendatzea ➤ Besteen iritziak errespetatzea 	<ul style="list-style-type: none"> n Arazo baten aurrean aukera ezberdinak planteatzen dira n Txoko bakoitzean irtenbide bat duen kartel bat ipintzen da n Ikasleek txoko bat aukeratzen dute eta, talde bezala, aukera hori justifikatu behar dute n Talde-gela aurrean defendatzen dute
<i>Philips 6/6</i>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Parte-hartzea ➤ Iritziak ematea 	<ul style="list-style-type: none"> n Sei pertsonaz osatutako taldeak antolatzen dira n Sei minutu eztabaidatzeko dute n Pertsona bakoitzak minutu bat du n Bozeramaileak guztien ideiak aipatzen ditu
Ogitarteko	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Adostasunera iristea 	<ul style="list-style-type: none"> n Galdera, arazo, egoera, irakurgai ...bat aukeratzen da n Talde txikiak osatzen dira n Kideen artean ideiak partekatzen dira n Taldeak ondorioak ateratzen ditu eta ikasgelan partekatzen dira

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

Teknika	Gaitasunak	Oharra
Akuarioa	<ul style="list-style-type: none">➤ Eztabaidatzeko gaitasuna garatzea➤ Behaketa lantzea➤ Entzute aktiboa bultzatzea	n Bi zirkulu osatzen dira: a) barrukoek eztabaidatzen dute (bi aulki libre uzten dira) eta b) kanpoek behatzen dute
Zirkulu kontzentrikoak	<ul style="list-style-type: none">➤ Eztabaidatzeko gaitasuna garatzea	n Bi zirkulu osatzen dira, elkarri aurpegia emanez: a) irakasleak proposatutako gaiaren inguruan aurrekoarekin hitz egiten dute (eta 3 minutu ondoren); b) zirkuluak aurkako norabidean mugitzen dira, eta kide berriarekin hitz egiten dute
<i>Brainstorming</i>	<ul style="list-style-type: none">➤ Ideiak antolatzea	n Gai, egoera, gatazka ...baten inguruan norberaren ideiak, jakintzak, aurreiritziak esaten dira
.... <i>Kahoot</i>	<ul style="list-style-type: none">➤...	...

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategi metodologikoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

**Teknika bat aukeratzeko irizpideak
Kontuan hartu beharreko alderdiak:**

- ❖ Erdietsi nahi ditugun helburuak
- ❖ Taldearen dimentsioa
- ❖ Taldearen heldutasuna
- ❖ Ikasgelako testuingurua
- ❖ Denbora
- ❖ Ikasleen ezaugarriak
- ❖ Irakaslearen nortasuna

**Parte-hartze prozesua hobetzeko
Kontuan hartu beharreko alderdiak:**

- Eztabaida ez monopolizatzea
- Eskua altxatzen duen lehendabizikoari hitza EZ ematea
- Hitz egiten eta hitz egiten ez duena kontuan edukitzea
- Intimitatea errespetatzea
- Parte-hartzearen helburua argitzea

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

Irizpideak

- **Erantzun nahi dugun arazoa kontuan eduki**
- **Ikasleen beharrak identifikatu eta, ondoren, baliabideak zentzuz aukeratu**
- **Baliabideen diseinua prestakuntzaren filosofiarekin bat egin behar du**
- **Baliabideak sinpleak izan behar dute eta eskuragarriak egon**
- **Prestatzailearen papera zehaztu behar da**
- **Baliabideak ikasiko diren edo baliabideei esker ikasiko den zehaztu**

Hemen aipatua:
TEJADA, J. (2007). *Formación de formadores*. Thomson.

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

Aztertzeko dimentsioak

Gimeno (1981) eta Zabalza (1987)

Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea	Alderdi baikorrak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Erabiltzeko errazak ■ Helarazi nahi den mezuaren eta baliabidearen erabileraren arteko egokitzapena (irudiak, hitzak ..) ■ Mezuaren eta errealitatearen arteko hurbiltasuna 	
	Funtzionalitatea	Hartzaileari egokituak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ikasleen gaitasun motak ■ Ikasleen garapen maila ■ Aurretiako prestakuntza-esperientziak ■ ...
		Sekuentzia didaktikoari egokituak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baliabideak sustatzen duen komunikazioa; irakasle-ikasle, ikasle-ikasle ... ■ Espazio eta denbora mugak ■ Ikasgelaren eta taldearen antolakuntza ■ Baliabideak sustatzen dituen jarduerak ■ Baliabidearen garrantzia ikaskuntza prozesuan ■ ...
	Kostua eta errentagarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baliabidearen kostua eta mantenua ■ Bestelako ekipamendu gehigarrien beharra ■ Aurreko puntuen eraginkortasuna baloratzea 	
	Beste balorazio-irizpide batzuk	<ul style="list-style-type: none"> ■ Berritzailea ■ Motibatzailea ... 	

3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak

3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia

3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak

3.3.1 Prestakuntza-modalitateak

3.3.2 Estrategia metodologikoak

3.3.3 Irakaskuntza-metodoak

3.3.4 Prestakuntzarako teknikak

3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea

3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea

3.6 Prestakuntza ebaluatzea



3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea


Espazioaren antolaketa. Nola bihurtu espazioa komunikazioa errazten edo oztopatzen duen elementu

Komunikazio egokia, arina, traba-gabea, irekia eta eraginkorra bermatzeko, ondorengo elementuak kontuan eduki:




3.5 Eszenatoki fisikoak prestatzea eta antolatzea


V sistema



T sistema




Sistema magistrala




**F = Formatzailea/
prestatzailea/Hezitzailea/
Irakaslea**

3.5 Eszenatoki fisikoak prestatzea eta antolatzea

Sistema zirkularra




Talde-lana Sistema



**F = Formatzailea/
prestatzailea/Hezitzailea/
Irakaslea**


U Sistema



3. Prestakuntza-proposamenak eraikitzeko funtsezko elementuak diseinatzea

- 3.1 Gaitasunak eta prestakuntza helburuak
- 3.2 Edukien hautaketa eta sekuentzia
- 3.3 Prestakuntza-modalitateak eta estrategia metodologikoak
 - 3.3.1 Prestakuntza-modalitateak
 - 3.3.2 Estrategia metodologikoak
 - 3.3.3 Irakaskuntza-metodoak
 - 3.3.4 Prestakuntzarako teknikak
- 3.4 Baliabideak aukeratzea eta erabiltzea
- 3.5 Eszenatoki fisikoa prestatzea eta antolatzea
- 3.6 Prestakuntza ebaluatzea**

3.6 Prestakuntza ebaluatzea



Hemen aipatua:

TEJADA, J. (2007). *Formación de formadores*. Thomson.

Ebaluazioaren oinarrizko dimentsioak

Zer ebaluatu?




- Beharrak
- Helburuak
- Gaitasunak
- Edukiak
- Metodologia
- ...

- Irakaslea
- Ikaslea
- ...
- Programa, diseinua ...

Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak

Zertarako ebaluatu?


- **Diagnostikorako**
- **Formaziorako**
- **Egiaztatzeko**
- **Inpakturako**



Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak

Noiz ebaluatu?

- **Hasieran**
- **Etengabe**
- **Bukaeran**



- **Noizean behin**

Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak

Zerekin ebaluatu?

- **Behaketa**
- **Galde-sortak**
- **Elkarrizketak**
- ...

Instrumentuak

- **Testak**
- **Zereginen azterketak**
- ...

- **Talde dinamikak**

Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak

Nork ebaluatu?



- **Irakasleak / prestatzaileak**
- **Ikasleak / Partaideak**
- **Zuzendaritza taldeak**
- **Ikuskariak**
- ...

- **Autoebaluazioa**
- **Heteroebaluazioa**
- **Koebaluazioa**


- **Barruko ebaluazioa**
- **Kanpoko ebaluazioa**

Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak


Nola ebaluatu?

• **Kuantitatiboa**

• **Kualitatiboa**



Ebaluazioaren oinarritzko dimentsioak



Zeren arabera ebaluatu?